

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

EUSLAN

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016/04/19

- | | | |
|---|--|---|
| 1 | Izena | EUSLAN Programa pilotua |
| 2 | Hizkuntza | euskara |
| 3 | Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...) | Arlo sozio-ekonomikoa. Industria sektoreko enpresak |
| 4 | Kontakturako helbidea edo telefonoa | Jorge Giménez Bech, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila – EUSKO JAURLARITZA

j-gimenezbech@euskadi.eus

Tel.: 945019456 |
| 5 | Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...) | |

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

- | | | |
|---|--|---|
| 1 | Praktikaren azalpena | Eusko Jaurlaritzak, euskararen erabilera alor sozioekonomikoan sustatzeko praktika onak identifikatu eta zabaltzeko borondatea du. Hori horrela, euskaraz lan egitea helmuga duen bidean aurreratuen dauden enpresen artean ezagutza-trukaketa egituratzeko programa pilotu bat jarri du abian. |
| 2 | Praktikaren azalpenaren laburpena | EUSLAN Programa pilotua da, eta bere helburua da, enpresa industrialetako lan-hizkuntza gisa euskara erabiltzeko prozedurak eta praktikak diseinatu eta gauzatzea, barrura eta kanpora begira, ahozkoan, idatzizkoan eta hizkuntza paisaian. Jarraian, programaren zenbait xehetasun:

- Esperientzia pilotua da. |



- 2017an amaituko du bere ibilbidea (3 urteko programa). Aldi horretarako, Eusko Jaurlaritzak 904.293 euroko esleipena egin die EUSLAN programako enpresei.

- Diru-laguntza ez ezik, programaren dinamizazioa eta zuzendaritza emango da Jaurlaritzatik, ELAY enpresaren eskutik hain zuzen ere. Jaurlaritzaren interbentzioa, beraz, bikoitza da: diru-laguntza eta ezagutzaren ekarpena.

- Industriaren sektoreko 12 enpresa dira parte hartzen dutenak: Batz, Cikautxo, Copreci, Danobat, Eika, Elay, Goizper, JMA, Maier, Matz-Erreka, Orkli eta Ulma CYE.

3

Aurrekariak

(Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)

Entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak deialdia, gaur egun LANHITZ deialdia, 1997an argitaratu zen lehen aldiz eta hasierako deialdi haiek urte anitzekoak izan ziren. 2004tik aurrera, ordea, urte bakarreko deialdia da.

2006an LanHitz programa garatu zen euskara-planen estandarizazioa eta homogenizazioa lortzeko. Euskararen erabilera eta presentzia ahalik eta enpresa gehienetara zabaltzeko beharrezkoa ikusten zen kontzeptuak, pausoak, tresnak, eta bestelako baliabideak bateratzea. Hori dela eta, Erreferentzia Marko Estandarra (EME) deritzan laguntza-koadroa osatu zen. Laguntzarako tresna da, erakunde edo enpresa estandar baten ohiko jardun-eremuak irudikatzen ditu, hizkuntza non eta zertan erabil daitekeen erakutsiz. Hortaz, EME (1. ardatza: irudi korporatiboa eta harrera; 2. ardatza: kanpo-harremanak; 3. ardatza: barne-harremanak eta 4. ardatza hizkuntza-politika) norbere beharretara egokitu ondoren, neurrira egindako ekintza-plana lantzea da helburua.

1997-2014 aldian diru-laguntza deialdietan parte hartu duten enpresak 386 izan dira, eta esleitutako dirua 25.063.261,35 eurokoa.

Eusko Jaurlaritzak, LanHitz programa marko horren testuinguruan, euskararen erabilera alor sozioekonomikoan sustatzeko praktika onak identifikatu eta zabaltzeko borondatea erakutsi du, eta horretarako programa berri hau sortu du.

EUSLAN programa guztiz berritzailea da. Berritzailea da edukiari dagokionez, eta berritzailea da lan egiteko eta kolaboratzeko moduari dagokionez.



4	Helburuak	Programa horren helburu bikoitza honakoa da: batetik, industria-enpresetako lan-hizkuntza gisa euskara erabiltzeko prozedurak eta praktikak diseinatu eta gauzatzea, barrura eta kanpora begira, ahozkoan, idatzizkoan eta hizkuntza paisaian; bestetik, Eusko Jaurlaritzak arlo sozioekonomikoan bideratzen eta bideratuko dituen ekimenen eraginkortasuna areagotzeko ondorio eta ikasbide baliagarriak ateratzea.
5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	Lan-mundua. Industriaren sektoreko 12 enpresa dira parte hartzen dutenak. Enpresa horietatik, 8 kokatzen dira Gipuzkoan, eta 4 Bizkaian, eta guztien artean 5.000 langiletik gora biltzen dute.
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza – EUSKO JAURLARITZA
7	Implementazio-epea	2015-2017 aldia hartuko du programa pilotuak. Diru-laguntza deialdia 2015eko uztailaren 30eko EHAAn argitaratu zen.

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barne-kanpo hedapena...)	EUSLAN programan parte hartzen duten 12 enpresa horien langile-kopurua 5.522koa da. Lantaldeari dagokionez, koordinatzailea (Elay enpresakoa) eta HPSko 3 langile.
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Diru-baliabideei dagokienez, 3 urteko programa da, eta Eusko Jaurlaritzak 904.293 euroko diru-laguntza aurreikusi du. Denborari dagokionez, programaren dinamizatzailearen lan-jarduna, enpresen dedikazioa eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako 3 teknikarien parte-hartzea.
10	Lortutako emaitzak	<p>Planaren helburua lortuzat joko da enpresen jardueran honako hauek betetzen direnean:</p> <p>a) Enpresa parte-hartzailearen euskararen erabilera, LanHitzen parametroetan zehaztutakoaren arabera, % 90era iristen denean edo enpresa parte-hartzaileak duen indizea % 20 batez hobetzen denean, ahozko eta idatzizko barne lan harremanei eta hizkuntza paisiari dagozkenez (erreferentziako indizeak, enpresa parte-hartzaileak 2015eko LanHitz deialdirako aurkezturiko dokumentazioan jasotakoak izango dira).</p> <p>b) Kanpo harremanetan euskara erabiltzeko eskakizuna sistematizatuta dagoenean.</p> <p>c) Euskal Herriko bezeroentzako produktuei buruzko jakingarriak eta salmenta osteko arreta euskaraz eskaintzen direnean.</p> <p>Programa pilotuaren helburuen betetze-maila neurtu eta ebaluatuko da, eta horretarako, EUSLAN2 multzoko enpresek 2017ko Bikain,</p>



Euskararen Kalitate Ziurtagiria lortzeko deialdian hartu beharko dute parte.

11 Dokumentazioa
erreferentziako
materiala

AGINDUA, 2015eko uztailaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2015-2017 epealdian EAEko industria sektoreko enpresetan euskara lan-hizkuntza izan dadin diru-laguntzak ematea arautzen duena (EUSLAN Deialdia). (EHAA, 2015eko uztailaren 30, 143. zk.)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/07/1503376e.pdf>

12 Aurkezpen bideoa

13 Intereseko informazio
gehigarrik

